Lezoko Unibertsitateko Udala

## DIKTAMENA

Lankidetza hitzarmena, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailarekin informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko.

Convenio de colaboración a suscribir con el Departamento de Administración Pública y Justicia del Gobierno Vasco para la prestación mutua de servicios de información, administración y gestión electrónica.

**2016ID360002**

Euskadiko administrazio publikoetako elkarreragingarritasun-sistema orokorraren xedea administrazioen arteko datu-trukaketa erraztea da, herritarrek paperezko ziurtagiririk aurkeztu beharrik izan ez dezaten.

El sistema general de interoperabilidad de las Administraciones públicas de Euskadi tiene por objeto facilitar los intercambios de datos entre las distintas Administraciones para evitar que la ciudadanía tenga que aportar certificados en papel.

Herritarrek zerbitzu publikoak baliabide elektronikoen bitartez erabiltzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak ezarri du herritarrek eskubidea dutela herri administrazioek badituzten datuak eta agiriak ez emateko. Eskubide hori bermatu nahirik, Eusko Jaurlaritzak hainbat hitzarmen formalizatu ditu edo formalizatzekotan dago Lehendakaritza Ministerioarekin, Estatuko Administrazio Orokorraren, foru-aldundien, udalen eta beste administrazio publiko batzuen datuak eskuratzeko.

La Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los servicios públicos, reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar datos y documentos que obren en poder de las Administraciones Públicas. Para dar cumplimiento a este derecho el Gobierno Vasco ha formalizado o esta formalizando diferentes convenios con el Ministerio de la Presidencia, para recabar los datos de la Administración General del Estado, las Diputaciones Forales, los Ayuntamientos y otras Administraciones Públicas.

Administrazio-prozedurak izapidetzeko orduan, elkarreragingarritasun-zerbitzu horiek administrazio publikoei aukera emango diete herritarrei, enpresei eta erakundeei eskatzen zaizkien datuak eta ziurtagiriak elkartrukatzeko. Horrela, herritarrek ez dute ziurtagiriak paperean aurkeztu beharrik izango eta, aldi berean, administrazio-prozeduraren legezko berme guztiak eta datuen babesa bermatzen dira.

Estos servicios de interoperabilidad van a permitir a las administraciones públicas intercambiarse los datos y certificados requeridos a la ciudadanía y a las empresas e instituciones en la tramitación de los procedimientos administrativos en los que estos participan, evitando que la ciudadanía tenga que aportar certificados en papel y, al mismo tiempo, asegurando todas las garantías legales del procedimiento administrativo y la protección de los datos.

Momentu honetan hainbat elkarreragingarritasun-zerbitzu daude erabilgarri, bai EAEko beste administrazio batzuekin, bai Estatuko Administrazio Orokorrarekin, eta pixkanaka zerbitzu gehiago gehituko zaizkio elkarreragingarritasun-zerbitzu orokorrari.

En el momento actual se encuentran ya operativos diversos servicios de interoperabilidad tanto con otras Administraciones Vascas como con la Administración General del Estado y de forma progresiva se irán añadiendo más servicios al sistema general de interoperabilidad.

Eusko Jaurlaritzak lankidetza hitzarmen eredu bat du Udalekin sinatzeko, EHAAn 2013ko urriaren 17an argitaratua. Hitzarmen horren bidez elkarri uzten dizkiote informazio zerbitzuak, administrazio zerbitzuak eta kudeaketa elektronikoa.

El Gobierno Vasco tiene un modelo de convenio para firmar con los ayuntamientos, publicado en el BOPV el 17 de octubre de 2013. En base a ese convenio se ceden mutuamente servicios de información, administración y gestión electrónica

Zerbitzuen katalogoa anitza da, baina nabarmendu beharra dago bide horretatik Eusko Jaurlaritzako departamentuek, haien artean Lanbidek, erroldatze datuak eskuratu ahal izango dituztela herritarra udaleko leihatilara joan behar izanik gabe; adibidez, Bidegi eta Garraioen Agintaritzan egun gertatzen den antzera.

El catálogo de servicios es variado, pero cabe destacar que mediante esta vía, los diferentes departamentos del Gobierno Vasco, entre los que se encuentra Lanbide, podrían obtener los datos de empadronamiento sin que el ciudadano acuda a la ventanilla del ayuntamiento, al igual que sucede en la actualidad por ejemplo con Bidegi y la Autoridad del Transporte.

Egun Eusko Jaurlaritzarekin lanean ari da Izfe zerbitzu hau integratzeko eta, ahal bezain laster, hitzarmen hori sinatua duten udalentzat eskuragarri egoteko.

En la actualidad Izfe está trabajando con Gobierno Vasco para integrar este servicio y que en el plazo más breve posible esté disponible para los ayuntamientos que tienen firmado el citado convenio.

Aipatu hitzarmenaren edukia Udalarentzat interesgarritzat jotzen denez, alkateak proposaturik, batzorde informatibo orokorrak ahobatez udalaren osoko bilkurari ondorengo **ERABAKI** hauek hartzea proposatzen dio:

Considerando que el contenido del convenio resulta de interés para este ayuntamiento, a propuesta del alcalde la comisión informativa general por unanimidad propone al ayuntamiento pleno la adopción de los siguientes **ACUERDOS**:

**BAT**: Onartzea Lankidetza hitzarmena, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saila eta Lezoko udalaren artean, informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko.

**PRIMERO**: Aprobar el convenio de colaboración entre el Departamento de Administración Pública y Justicia del Gobierno Vasco y la entidad local Ayuntamiento de Lezo para la prestación mutua de servicios de información, administración y gestión electrónica.

**BI**: Onartutako lankidetza-hitzarmen hau sinatzeko, Lezoko alkatea den Jesus Maria Martiarena Jaca, ahalmentzea.

**SEGUNDO**: Facultar al alcalde de Lezo, Jesus Maria Martiarena Jaca para la firma del convenio de colaboración aprobado.

**HIRU**: Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen udal-ordezkapena Jesus Maria Martiarena Jaca alkateak eta Xabier Loiola Aristi udal idazkariak osatuko du.

**TERCERO**: La representación municipal en la Comisión de Seguimiento del Convenio estará compuesta por el alcalde Jesus Maria Martiarena Jaca y por el secretario municipal Xabier Loiola Aristi.

**LAU**: Interesatuei erabaki honen berri ematea.

**CUARTO**: Comunicar este acuerdo a las partes interesadas.

Lezo, 2016/05/20.

LEZOKO UNIBERTSITATEKO ALKATETZA

Jesus Maria Martiarena Jaca, Alkatea.